

Azterketa zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpideak

Curriculuma ezartzen duen apirilaren 22ko 24/2015 Foru Dekretuan zehazten diren **ebaluazio irizpideak eta estandarrak** kontuan hartu izan dira.

Azterketan nahi eta nahi ez hartuko dira aintzat aipatutako irizpide orokor horiek, jakina, eta probak hiru atal dituen, estandarretatik ondorioztatutako irizpide hauek erabiliko dira atal bakoitzean.

A1-B1.- Hizkuntzaren ezagutza. Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta. 3 puntuko balioa izanen du, eta egin daitezkeen hiru galderetan honako hau hartu behar da aintzat: deklinabideari dagokionez, kasua (bere izen teknikoarekin) eta numeroak zuzen eman diren; aditzari dagokionez, aspektua, aldia, pertsona eta modua era egokian emanak dauden; eratorpenari dagokionez, berriz, ikasleak ematen dituen hitz berriak zuzenak diren; berridazketei dagokionez, esan behar da ikaslea aldaketa morfosintaktikoez baliatu behar dela mendeko perpausen ordaina emateko, ez duela balio hiztegi mailako aldaketak soilik egitea, eta azpimarratu behar da testu horretan bertan txertatzeko balio duen kidea izan behar dela; eta azkenik, sinonimoei dagokionez, testuinguru horretan emateko balio duen hartuko da aintzat. Bost item izanen dira galdera bakoitzean, item bakoitzak 0,2 balioko dituela, eta item osoak ongi egon behar du ontzat hartzeko.

A2-B2.- Ahozko/ Idatzizko komunikazioa. Hezkuntza literarioa. Irakurtzea eta ulertzea. Arlo honi 4 puntu emanen zaizkio. Atal honetan testuaren ulermena eta interpretazioa eskatzen duten galderak daude. 2 galdera egingen dira, bi puntukoak. Galdera guztiak era laburrean erantzungo dira, 100/150 hitz bitartean. Guztietan esaldi osoak emanen dira, sintagmarik eta eskemarik onartuko ez dela.

Alde honetatik, baloratuko da galdetzen dena antzeman den, arrazoitu den, adibide egokirik eman den, zuzena den, koherentea den, eskatutakoari lotzen zaion, informazioa egoki eman den, informazioa galdu den, sintetizatze gaitasuna duen, eskatutako hitz kopurua errespetatu den... Ulermen zehatzean, esanahia antzeman den... Laburpean, ideia nagusiak biltzen diren, objektiboa den, testuko hitzetatik aldentzen den...

A3-B3.- Ahozko/ Idatzizko komunikazioa. Hezkuntza literarioa. Idaztea.

Azkenik, ekoizpen lana dago (balorazio kritikoa), 3 puntukoa eta 200 hitz baino gehiagotan garatu beharrekoa. Testuko gaiari, tesiari edo ideia nagusi bati buruzkoa izanen da. Testuaren ezaugarri edo propietateak kontuan harturik ere egiteko aukera izanen dute. Eskatutako hitz kopurua eman behar da gutxienez. Sortutako testuaren balorazioan eta puntuazioan honako aldagai hauek hartuko dira kontuan: gaiarekiko loturak eta erlazioak, argudioen edo arrazoiaren sendotasuna eta heldutasuna, sormena, jakintza entziklopedikoen erabilera, idatzitakoaren koherentzia, kohesioa, egokitasuna, zuzentasun gramatikala, ortografia, estiloa, egitura desberdinen erabilpena, aurkezpena, hiztegiaren aberastasuna, txukuntasuna, argitasuna...

Bereziki aintzat hartuko da koherentziaren eta kohesioaren aldetik testua zuzen emana izatea eta zuzentasun gramatikala.